

- Entzutekuak: Javi Perez, Realeko idazkaritza teknikoan
- Zer Berri: Santiago-Santa Ana jaietako egitaraua

soraluzeko  
hamabostekaria **202.** alea  
2009ko uztailaren 3an

# PILE-PILEAN



**PATRICIA BORINAGA**

**“Herritarrek ez dute zertan ordaindu gure desadostasunik”**



# SAN ANDRESKO JAIXAK 2009



## OHARRA:

Herri afairako txartelak salgai  
Gaztelupe, Gila eta Arrano  
tabernetan.

Menua: Entsalada, bakailau  
tortila, saiheskia, postrea, kafe  
eta kopa. 16 euro (uztailaren 8tik  
aurrera 18). Txopoaren puntara  
igotzen duenarendako, doan.

## UZTAILAREN 11, ZAPATUA

18.30ean SAGARDO JAIA bertsolari eta trikitilariekin

21:00etan HERRI AFARIA

23:30ean DARLING SHOES eta BESTEBAT

Laguntzailea:

Antolatzailea:




San Andres Elkarte



Soraluzeko  
Udala

# GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



Oier Oregi Unamuno  
Santa Ana 7  
Tel. 943750022



**Lepoko minak**  
**Erreuma**  
**Erreabilitazioa**  
**Kirol osteko errekupezioa**  
**Tendinitisak**  
**Zaintiratuak**

Ordutegia:

8:00etatik 21:00etara (oin ez dabe ixten)





UBANE MADERA



MIKEL SANTIAGO


## BIHAR BERANDUEGI IZAN LITEKE

**G**ehienek ahazteko bidean izango duzue Lizarrako Maria Puy Perez Ezpeletaren hiltzaileak hilketa onartu eta haren gorpua non lurperatu zuen kontatu izana. Bada niri ez zait ahaztu, eta horren gainean berba egin nahi dut zurekin oraingo honetan.

Zortzi hilabete, Mikel, zortzi hilabete eta hiltzailea lau bider atxilotzea behar izan du poliziak Maria Puy Perez hil dutela eta haren gorpuzkiak lurpean daudela jakiteko. Jose Maria Morentin bikote ohi eta hiltzaileak, gainera, honako adierazpenok ere egin izan ditu: *“Nik badakit Maria Puy non dagoen; zuek jakin nahi baduzue, ordaindu egin beharko duzue”*.

Ezin dira ebitatu konparazioak Estatuan beste delitu batzuk zigortzeko egiten dituztenak ikustean. Zer da latzagoa, edukiontzi/kutzazain/automobil bat erretzea edo emakume bat hiltzea? Askoz ere larriagoa da aurrenengoa. Terrorismoa delako, jakina. Orduan, akaso emakumeak jipoitzen edo erailtzen dituztenak ez dira terroristak? Espainiako Erret Akademiaren definizioaren arabera, terrorista da terrorea eragiten duena. Eta kitto. Hor ez dago kontsiderazio politikoendako lekurik.

Hori guztia gizaratean islatu eta gure ondorengoei bide bera erakusten diegu: emakume bat hiltzea oso merke ateratzen da eta ez zaio eman behar berebiziko garrantzirik.

Martitzenean bertan, Irunen emakume bat eraso egin zuen bikotekideak, apurtutako botila batekin, lepoan. Noiz arte? 

“

**Zer da latzagoa, edukiontzi/kutzazain/automobil bat erretzea edo emakume bat hiltzea?**

Ubane Madera

**Egunero daukagu Maria Puy bat baino gehiago sufritzen**


Mikel Santiago

”

**N**oiz arte? Ba hori jakin nahiko nuke nik ere Ubane, noiz arte jarraitu behar ote duen gizarte hau odolusten duen izurrite maltzur honek. Horrelakoak gertatzea posible egiten duen gizartea gaixo dago eta lehenbailehen eman behar baitzaio botika senda dadin.

Gizartea ezin erabil dezakegu ordea bakoitzak izan genezakeen erantzukizuna saihesteko. Egunero daukagu Maria Puy bat baino gehiago sufritzen, makilakadak, isekak eta mehatxuak jasotzen, jasanezineko izua izkutuan, malkotan itotzen, hiltzen... uste duguna baino gertuago, eta gutako bakoitzak serio aztertu beharko genuke, horrelakoak gerta ez daitezen nahikoa egiten ote dugun, batez ere mutilok.

Argi adierazi behar dugu ezin dela onartu tratu txarrak salatzen dituzten emakumeen inguruko txiste txar bat gehiago ere, ezta zalantzan jarritzea zenbaitzuek pairatzen dituzten egoera latzak, gure *“gizontasuna”* norbaitek zalantzan jarri nahiko balu ere. Emakumea gaizki tratatzen duena, hori ez da gizona.

Ubane, garrantzitsua da bion arteko harreman *“epistolar”* hau irakurtzen duen edozein emakumeri argi esatea, edozein motako tratu txarrak jasotzen ari bada, ongizate zerbitzura jotzeko, han jaso baitezake behar duen laguntza. Baina ez dezala egun bat gehiago itxaron ezeregin gabe, bihar beranduegi izan liteke eta. 

Goguan hartzeko

**Denbora joan, denbora etorri, gauza guziak bueltan etortzen dira  
Gotzon Garatek batua.**



## GUTUNAK

Zorionak  
Soraluzeko  
F.T-Ri

Hilaren 6an Donostian izandako partiduan Soraluzeko futbol taldeak garaipena lortu zuen Kostkas taldearen aurka (0 - 1). Garaipen honi esker futbol taldeak mailaz igotzea lortu du. Benetan gogor lan egin behar izan dute jokalariek berriz ere mailaz igotzeko, baina lan gogorraren emaitza dugu igoera hau.

Berri pozgarri hauen harira jakinaraztea nahi dugu ekainaren 3an izan genuen Osoko Bilkuran aho batez onartu genuela alderdi politiko guztiok futbol zelaia proiektua exekutatzeko kreditua. Gure botu azalpenean adierazi genuen bezala, prozesu honi hasiera aurreko legealdian eman zitzaion. Orduan kiroletako zinegotzi zen Jose Luis Badiola eta alkate zen Oskar Gabilondok Kiroletako Foru Diputatuarekin bilera izan zuten futbol zelaia

egoera aztertzeko. Kontutan edukita zelaia egi- era Diputazioak lehentasunezko zat jo zuen zahar- berritzea. Hauteskunde kanpaina gure alderdiak futbol zelaia proiektua barneratu zuen hautes- kunde programan. 2009ko aurrekontuak onartu ez arren, gure taldeak hitz eman zuen proiektuaren alde egingo zuela eta horrela egin dugu burutu den azkeneko Bilkuran.

Ondorioz, futbol zelaia proiektua errealitate bat izango da 2010 urterako. Benetan berri pozgarriak, alde batetik mailaz igo eta bestetik Soraluzeko Fut- bol taldeak zelaia berri bat izango du etorkizunean. Zorionak zuzendaritzari eta baita jokalariei ere!!!

### SORALUZeko EAJ/ PNV UDAL TALDEA

Pala  
txapelketako  
emakumeon  
manifestua

Kirol inguruan hedatutako kulturak ez du ema- kumeontzako kirol mota eta egitura egokirik eskaintzen. Mendebaldeko gizarte modernoetan ki- rolak duen antolaketa tradizionalak, emakumeok kirol gutxiago egitera eraman gaitu.

Txapelketa honetan parte hartzen dugun 18 eta 50 urte arteko 32 emakumeok ez dugu kirola kon- petibitate eta irudi bezala ulertzen. Gozamenerako Kirol herrikoi bat bultzatzea nahi dugu, herriaren interesak defendatuko dituen kirola eta ez batzuen poltsikoak beteko dituen.

Gure partaidetzaren helburua kirolarekin goza- tzea da, jendarte patriarkalak eraikitako eredu honi aurre eginez, beste eredu bat eraikiz.

Emakumeon inbisibilitatea alor askotan ematen da, kirol arloan bezala torturan ere. Jakina da, tortura gogorra dela, eta are eta gogorragoa emakumeon kasuan, horrela salatu dute atxilotutako emaku- meek, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, ONUko errelatoreak eta Amnistia Internazionalak. Beste errealitate honekin ere bat egin nahi izan dugu.

**PAREKIDETASUNAN BIDIAN, txokuan zein zabalian, aurrian ta atzian.. AURRERA BOLIA!!**

# Pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzio burua:** Leire Iturbe Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Azala:** Pablo Galarraga **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



## bittartetik



Unai Larreategi

**ERRESPETUA NOREKIKO?**

**B**ideseinale elebidun batzuk ezabatu zirelako zalaparta sortu zen herrian negu aldean. Plenora ere heldu zen horren salaketa, eta elebitasunaren alde EAJ, PSEE-EE eta PPK espainol hutsean aurkeztutako mozioa onartu zuten. Bi hizkuntzen elkarbizitza omen dute beraiek helburu, baina zein politika ezkututzen da diskurtso horren atzean?

Jaurlaritza berrian adibideak bizkor ari dira azaleratzen. Hezkuntza Sailak A eredia indartuko duela dio, badakite ez duela euskalduntzen, baina itxuraz berdin die EAeko haurrek euskaraz ez ikastea. Osakidetzan euskara gehiegi eskatzen omen delako, medikuak Espainiara omen doaz lanera... Zer da ordea mediku ona? Onartuko al lukete espainolez jakingo ez lukeen medikurik Madrilen? Soroluzen 3 mediku daude, eta batak ere ez daki euskaraz...

Euskaraz bizi nahi izatea ez da batere eroso gure herrian bertan. Errespetuaren izenean euskarari uko egin behar izaten diogu askotan. Noiz arte ordea horrela? Nik euskaraz bizi nahi dut eta kitto, ez dut inorekin haserretzea helburu, baina errespetua lehendabizi neure bizinahiari zor diot.

**JAVI PEREZ, Realeko idazkaritza teknikoan**

**J**avi Perez (1949, Soroluze) eza-guna da futbolaren munduan. Ibilbide luzeko gizon honek, urte mordo zelaian jokatu eta gero, entrenatzaile lanari eutsi zion eta idazkaritza teknikoari gero. Eibar Futbol Taldeko idazkaritza teknikoan hamar urte egin, Alavesen urte latza pasa eta orain Realean dago aro berri bati ekiteko gertu.

**Zela hartu dozu Realin bi urterako fitxaketia?**

Alavesen pasatutako azken urtia gogorra izan da. Gasteizkua okertu egin zan, badakigu futbolak zela funtzionatzen daben. Orduan, ilusiño haundiz hartu dot Realian lan egitteko notizia.

**Zein izango da zehazki zure lana?**

Gure helburua idazkaritza tekniko indartsua osatzia izango da. Funtzian, gure lana futbolariak eta ordezkarixak ezagutzea da. Zenbat eta ezagupen haundixagua izan, orduan eta errazagua izango da fitxaketak egittia. Horretarako, futbolariak datuak batu bihar dira, beren izaeria ezagutu, zelaian zein postutan juango diran erabaki eta abar. Teorikoki hori da gure lana.

**Kluban arabera be desberdina izango da, ezta?**

Bai noski. Nik beti adibide bera ipintzen dot: Sevillako Futbol Kluba. Oso ondo antolatuta dauke dana, urte osuan zihar behatzailiak izaten dittue eta horrek lana eraginkorragua egitten dau.

Eibarko klubian be lana ondo, lasai eta ondo pentsatuta egitten da. Idealena idazkari teknikoan lana iraunkorra izatia da eta erabakixak aho batez hartzia.

**Realean helburua mailaz igotzia izango da?**

Hala da, bai. Eibarren izan nintzian, gure helburu bakarra mailari eustia zan. Mailaz igotziar gendela, larregi amestu eta azkenian mailaz jaitsi ginan. Realin ostera helburua igoeria da. Oso zaila izango da, hiru talde bakarrik igoko dira eta, baina ahalegindu egingo gara.

**Soroluzetarra izanda, jakingo dozu hemengo futbol kluban barri.**

Nik herriko taldian jokutzen nebanian ez zeguan klubik! Jakin dot Sorako nesken eta erregionalen igoerian barri eta benetan pozgarrixa da. Hala eta be, ia futbol zelaia barrixa egitten daben, benetan biharrezkua da eta. ☺

“Realean mailaz igotzea izango da helburu bakarra”

**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan jotako tornilluak


**Errekalde 21  
20590 SOROLUZE**T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61**HNOS. BENITO  
ANAIAK**Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuesto konpromisorik gabeT. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SOROLUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Bizikalek 600 euro zozketatuko ditu

Bizikale elkarteko zuzendaritza.

**B**izikalek ekin dio herriko merkataritza sustatzeari eta elkarte osatzen duten dendetan logo berria ikusteko aukera egongo da laister. Bestalde, uztailaren 10etik 20ra bitartean, erosketen truke, 15.000 errifa banatuko dituzte eta hilaren 22an arratsal-

deko 20:00etan 600 euroko saria jasotzen duen zozketa egingo da Plaza Barrixan. Diru hau elkarte osatzen duten dendetan gastatu beharko da. Arduradunek oraindik elkarte sartzeko aukera badagoela jakinarazi nahi diete herriko merkatariei, eta horretarako **bizikalelkartea@gmail.com** helbidera mezu bat bidali behar da edo **638 202 651** telefonora deitu (*Ainhoa*). ☞



## Bizikale elkartea

Bizikale elkarteko logua.

### Autobus zerbitzua Debara irailaren 6ra bitartean

Hondartzara joateko autobus zerbitzua martxan da joan den astelehenetik eta irailaren 6ra arte iraungo du. Ibilbide eta ordutegi desberdinak izango ditu: uztailaren 26ra arte, lanegunetan: Soraluze-Eibar-Deba: 12:30, 13:30, 14:30. Deba-Soraluze: 20:00; uztailaren 27tik irailaren 6ra: Soraluze-Eibar-Deba: 12:30. Deba-Eibar-Soraluze: 20:25.

### Udaletxeko igogailua ipintzeko lanak hasi dira



Duela astebete ekin diete udaletxeko irisgarritasuna erraztuko duen igogailuko lanei. Goitu Eraikuntzak S.L. enpresak daraman lan hau datorren urrirako amaitzea aurreikusten dute. Gero, udaletxea berregokituko dute. Bestalde, herri sarrerako boladizoa irailerako eginda egotea espero dute. Gaurtik aurrera, ibilgailuak Mendiola industrialdetik herri-ara zuzenean sartuko dira.

### Herritarrek alkateari galdetu ahalko diote

Soraluzeko Udalak herritarrek udalaren jardunaren inguruan izan ditzaketan zalantza eta galderei erantzungo die. Galderak helarazteko bi modu daude: **alkate@soraluze.net** edo kontzejupeko iradokizunen buzoia. Erantzunak Kontzejupetik aldizkariaren hurrengo alean kale-ratuko dira.

### Ostadar bandera Udalean zintzilikatuta

Hilaren 28an Gay Harrotasunaren Nazioarteko Eguna izan zen. Soraluzeko udaletxean, lehenengoz, ostadar bandera zintzilikatu zen Udaleko plenoan onartutako moduan.





## SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



## MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**



### PSE-EEren aurkako mezuak idatzi dituzte

Ekainaren 24ean PSE-EEren egoitzako hormetan "mira bat eta ordainduko duzue" idatzi zutela salatu zuen alderdi horrek. Joan zen asteburuan ezabatu zituzten. Asteburuan berean Ertzaintzak Jon Anzaren desagerpena salatzen zuten kartelak kendu zituen.

### Jaietako Kartel Lehiaketako lanak erakusgai



Hilaren 30etik uztailearen 4ra bitartean ikusgai izango dira Santiago – Santa Ana Jaietako Kartel Lehiaketan parte hartu dutenen lanak. Eguzkiñe Aldazabal sorluzetarra izan da aurtengo irabazlea. Erakusketa aretoko ordutegia: 19:00etatik 20:30era astegunean eta 12:00etatik 13:30era zapatuetan.

### KZgunea uztailean ere zabalik

Eguenero zabalduko da KZgunea 16:00etatik 20:00ak bitartean. Uztailearen 2, 9, 16 eta 23an 16:00etatik 20:00etara. Nabigatu, kurtsuak egin zein ONA txartela eskuratu ahalko da.

# SANTIAGO - SANTA ANA Jaietako egitaraua itxita

Jai Batzordeak aste honetan egindako bileran aurtengo jaietako egitaraua itxi du. Inoizko batzorderik jendetsuena eta anitzena izan dela aurtengoa aipatu dute kideek eta pozik daude lortutako egitarauarekin. Aurten, 83 472 eurokoa izango da udalaren aurrekontua.

### Uztailearen 24tik 27ra

Uztailearen 24ean, barrixakuan, hasiko dira herriko jaiak eta hilaren 27ra arte iraungo dute. Aurten ere Zubi Nagusian ipiniko dute txoznagunea eta kontzertuak, bazkariak eta jolasak antolatuko dituzte. Joan zen urteko berrikuntza batzuk jarraipena izango dute: txistorra eta sagardo banaketa, paella dastaketa eta zezensuzkoa, esate baterako.

### Berrikuntzak eta kontzertuak

Berrikuntzen artean Umeen Danborrada dago. Aspaldiko urteotan egin izan ez dena berreskuratu dute eta uztailearen 27an kalera irtengo dira. Osintxuko

dantza taldeak erakustaldia eskainiko du Santiago Egunean. Kale animazioa, umeentzako egitaraua, mariatxiak, danborrada, zezenak eta dultzaineroak ez dira faltako.

Kontzertuen artean, herriko Junzaitxetxera taldearena egongo da Plaza Zaharrean lehenengo egunerako. The Bond Scott Banden aurretik joko dute, ACDC talde handiaren bertsioak egiten dituen taldea. Hurrengo egunetan, Azteca orkestra eta Imuntzo eta Beloki izango dira Plaza Zaharrean. Zubi Nagusian Garraxi, Turboshit, Manba Beat, Skakeitan, Skati eta Frida Pipol taldeak izango dira jaietako lau egunetan joko dutenak. 

Aurtengo Jai Batzordea.



**GILA TABERNA**  
GOIZKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



**TXURITXU**  
**zuekin  
gozatzeko**  
943 75 24 43  
SANTA ANA KALEA 22 BEHEA



# PATRICIA BORINAGA

## Eusko Jaurlaritzako ateen barrukaldetik

Bi urte dira Patricia Borinaga herriko PSE-EEko zinegotzi aukeratu zutenetik. Aurten kargu handiagoa eman diote alderdian: Herri lan, Garraio eta Etxebizitza Sailburuaren idazkari da. Ordutik saltoka ematen ditu egunak, Soralezko Udal txikitik Gasteizko Jaurlaritza handira.

**N**ola bizitzen ari zarete PSE barruan Eusko Jaurlaritzako gobernuan egotea?

Lan berria polita da baina baita ezberdina ere. Oposizioan egotea errazagoa zen. Orain, gobernuan gaudela, geure buruarentzat gobernatzen ari gara. Ni oso pozik nago, baina erantzukizuna handia da, nire sailak interes handiko eta iritzi desberdin askotako gai potoloak jorratzen baititu. Gu politikoak gara eta berez arazoak konpontzeko gaude, eta ez berriak sortzeko. Horregatik nago ni hemen, jendeak bozkatu nauelako, aurreikuspenak

*“Gehienak autoan eta bakarrik ibiltzen gara, oso erosoak gara”*

eta zin egindakoa betetzeko esperantzarekin. Hori bai, ideia harrigarriak izanda ere, gero aurrekonturik ez badago ezin bete daitezke.

**Garraioa zein etxebizitza, biak ala biak herritarrek oso gertutik bizi dituzte.**

Hala da, bai. Etxebizitza denon eskubidea da eta oinarri-oinarrikoa. Garraioak ere badakigu zelako eztabaida dakarren. Ni nagoen lekuan egonda, jakina da AHTren oso





aldekoa naizela. Bere eraikuntzan ahalik eta inpaktu txikiena egiten saiatuko gara. Nik uste dut gerora, aurrerapen handia ekarriko digula. Bestalde, herri askotan asko sustatu da garraio publikoa. Gasteizen adibidez, autobus eta tranbia dago eta hala ere, gehienak autoan eta bakarrik ibiltzen gara. Oso erosoak gara.

### Zelakoa da sailburu baten idazkari lana?

Nik paper-kontuak egiten ditut eta baita filtro lana ere. Iñaki Arriolarekin hitz egin nahi duen orok, aurretik nirekin egon behar du. Beraz, egun guztian lanerako gertu egon behar dut. Etxera noanean ere, beti daramat sakelekoa aldean. Dena dela, inork ez ninduen lan hau egitera behartu, nire erabakia izan zen. Egiten dudana honetan sinesten dut.

### Eta Iñaki Arriolarekin lan egitea?

Iñakirekin lan egitea oso erraza da. Beti dago umore oneko eta oso gertuko pertsona da. Noski, inori ez zaio lanera joatea gustatzen, baina hipoteka bat ordaindu behar baduzu, jan egin nahi baduzu, ez duzu beste aukerarik. Beraz, lan giro ona izatea eskertzen da.

### Noiz arte ibili beharko duzue bizkarzainekin?

Beste bi urte gutxienez bai. Baina nork daki! Isaias Carrascoren kasua ikusita, ezin da jakin politika lagata ere ezer pasako ez zaidanik. Horrek ez dit ezer ziurtatzen. Bestela ere bizkarzainekin jarraitu beharko dut. Honek ez dit niri bakarrik eragiten, nire mutil lagunari, familiari zein lagunei eragiten die. Galdetu izan didate horrela bizitzeak merezi duen. Ni ez naiz herriko ausartena, ezta gutxiago ere! Baina uste dut, norbaitek egin behar duela. Burugogorkeria ere bada. Zergatik geratu beharko naiz ba etxean, desberdin pentsatzen dudalako?

### Zelakoa da herriko zinegotzi lana?

Nik beti izan nuen argi Soraluzeko zinegotzi izan nahi nuela. Duela bi urtetik Araban bizi naiz. Bertakoa izatea ere baneukan, zinegotzi sozialistak ez baitaude inon ere soberan eta ez da erreza izaten listak osatzea. Baina nik nire herrikoa izan nahi nuen. Gainera, modu honetan etxerakoan lan hori atzean lagatzen dut. Egunerokoa gogorragoa egiten da lan egiten duzun herrian bizi bazara.

**“Sekula ez dugu oposizioa egingo kontra egite soilagatik”**



### Zergatik ez duzue lortzen elkarlanean lan egitea Soraluze moduko herri batean?

Derberdintasunak agerikoak dira. Nahiz eta alkateak esan gu garela elkarrekin lan egin nahi ez dugunak, eragile asko daude tarteko eta ez da soilik guk nahi ez dugula. Gai batzuetan ez gara ados ipiniko baina garrantzitsuena herriarentzat onena dena egitea da. Edozein dela proposatzen duena. Sekula ez dugu oposizioa egingo kontra egite soilagatik. Soraluzerako ona bada, babestu egingo dugu. Izan ere, herriak ez du zertan ordaindu behar gure desadostasunik. ☞

**“Politika lagata ere bizkarzainekin jarraitu beharko dut”**

MOTZIAN	
<b>Adina:</b>	36 urte.
<b>Ikasketak:</b>	Turismo Ikasketak.
<b>Lan ibilbidea:</b>	Tabernari, dendari eta Aratekoan.
<b>Ibilbide politikoa:</b>	2007: PSE-EEko zinegotzi Soraluzeko Udalean. 2009: Herri lan, Garraio eta Etxebizitza Sailburuaren idazkari.

<b>Politika:</b>	Besteak laguntzea.
<b>Politikoak:</b>	Besteak laguntzen saiatzen den eta beti lortzen ez duen jende hori.
<b>Sozialismoa:</b>	Bizi modua gidatzen duen ideologia.
<b>Euskal Herria:</b>	Jaio nintzen lekua.
<b>Patricia 10 urte barru:</b>	Idearik ez. 25 urte barru hipoteka gabe espero dut.

# ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Ekonomia krisixak luze jotzen dihardu eta jende askoren bizimodua aldatu egin da ordutik. Udia be allegatu da eta baleike xoxik ez dagan lekuan oporretako planak aldatu biharra.

## Ekonomia krisixak udako planak aldatu erain dotsuz?

**IÑAKI IÑARRA**  
Harakina



**ANE MURO**  
Erreponedoria



**GONZALO RODRIGUEZ**  
Komertziala



**ARLANTZ EZTEIBAR**  
Tabernarixa



**G**ure ofiziuari ez da aldatarik igertzen. Izan be, guk, gure betiko hamabost egunak hartuko doguz abuztuan. Nik uste dot aurtan "Etxebeste" asko egongo dala. Gu mediterraneo aldera juango gara, la-saittasun bila.

**L**an aukera bat sortu jata udarako eta ezin dotsat ezetzik emon. Orduan, opor-rak etxian egin biharko doguz. Oporrik barik, gaizkixen umiak pasatuko dabe. Bestela Asturias eta Kantabriara juango ginakian.

**N**ik ointxe aurkitu dot lana ETT bidez eta uda osuan lan egittia tokatuko jata. Behintzat ez dot xoxik gastatuko. Dana dala, agenzia-ak jendian biharretara moldatzen dira eta etaratzen dittue bidai merkiak be.

**K**risixak neri ez dosta eragin bainadanadala, ez dakat urrinera jua biharrik opor-rak pasatzeko. Lagun batzuk etxian geratuko dira, hipotekak gora, lanik ez eta umiekin beste alternatibarik ez dakelako.

KOMIKIXA

Oporretan nora zoiazie?

Hawaiira joango gara !!!


... eta esan zoztan Hawaiira doiazela...

eta gu, Debara...

Ezin dot sinistu ikusten dutena.

Orduan Hawaiira ezta?

Ja, ja, bai, "Aupa Etxebeste" moduan...



Disainua eta Formena

Poligono Amillaga, n° 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:


- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434  
Jon Azkiorbebetia Txurrutia  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13





## AZKEN TXANGOIA

**M**aiatzaren 21ean, Euskal Herria laga eta Cantabria alderuntz abiatu ginen 5. eta 6. mailako irakasle eta ikasleok. Lehenengo geldialdia Cabarcenoko parkean izan zen. Han, gurekin bi egunak pasa behar zituzten hiru begiraleak ezagutu genituen: Arturo "Pelopunkia", Jaime "Atsegina" eta Lourdes "Desatsegina".

Autobusean eserita, lepoluzeak, ostrukak, errinozerontek eta beste animalia espezietako mordo bat ikusi genituen. Ez da hau ezagutu genuen Cristina bakarra. Cristina, elefante



bakartia ere ezagutu genuen. Cristina denbora baino lehenago jaio omen zen eta horregatik, bere familikoek baztertu egin zuten. Ordutik, hor dabil, bera bakar-bakarrik, futbolaria izateko entrenamenduak egiten. Parkean eskaintzen

dituzten ikuskizun zoragarriaz gozatu ondoren, bazkaldu eta Puente Viesgoko aterpetxera heldu ginen. Azkenean, gehien gustatzen zaiguna: gaueko parranda! Ramonek beldurrezko istorioak kontatu zizkigun eta nahiko barre egin genuen. Hurrengo egunean, Altamirako kobazulora joan ginen eta bisita honetan, Inguruneko klaseetan ikasitakoa zuzenean behatzeko aukera interesgarria izan genuen.

Bukatzeko, Santillana del Mar herri bitxia ikusi eta Euskal Herrira bueltatu ginen.



## JOATEKO ORDUA IRITSI DA

**D**agoeneko bukatu dugu Derrigorrezko Hezkuntzaren lehenengo zatia. Ume mokoak izatetik, gaztetxoak izatera heldu gara. Gezurra dirudi arren, hamar urte pasa dira hemen hasi ginenetik. Bizitzan bezala, momen-

tu oso onak eta ez hain onak bizi izan ditugu. Hala ere, eskerrak eman nahi diegu gurekin aritu diren irakasleei. Askotan haserre egin digute; beste batzuetan, zoriondu. Seguraski ez gara izan talderik onena, baina txarrena ere

ez. Edozein modutan, gurekin ez direla ahaztuko seguru gaude.

Denbora aurrera doa eta etorkizunak zer ekarriko digun ilusioaz, agurtzen zaituztegu.

## 6. MAILAKOAK EZ GARA MAKALAK

### IDAZLE BIKAINAK

**M**arta Oterok, Donostiako Cristina Enea Fundazioak antolatutako ingurumenari buruzko ipuin lehiaketako lehen saria irabazi zuen.

Alejandra Rodríguez-ek, Udaletxeak antolatzen duen ipuin lehiaketako bigarren saria eta Maialen Oregik hirugarrena jaso zuten.

Berta Alonsorekin kontuz! Judoka galanta bihurtu zaigu eta!



Irene Pérez, Marta Otero, Maialen Oregi eta Edurne Prol-ek gimnasia erritmikako dominak ekarri zizkiguten.


Joseba Mendizabal, Ricky Romero, Mikel Recio, Lander Oleurre, Mikel Oregi, Oussama Hina eta Ina Peñalba multi-kiroletan trebeenak. Astelehen batean kopa eta guztiz agertu zitzaizkigun gelan.



# Atxotegi eta Loiola Debarroko Pilota Txapelketako garaile



Iturria: Barren aldizkaria

Aitor Atxotegi soraluzetarrak eta Eneko Loiola elgoibartarrak irabazi dute Debarroko Pilota Txapelketa. Salaberria eta Irureta elgetarrei 22-21 irabazi zien ondo borrokatutako partida. 13-21 galtzen hasi zen bikotea, baina tanto bat bestearen atzetik egin eta txapela euren aurrera eraman zuten. Beste kategorietan, kadeteetan, Gallastegi eta Rezusta bergararrek irabazi zuten; jubeniletan, Bolina eta Agirregabiria arrasatearrek osatutako bikoteak. 

## EMAITZAK

### PILOTA

#### Binakakoa:

Mtz de Irujo – Beroiz .....22  
Gonzalez – Laskurain .....9

Mtz de Irujo – Goñi .....22  
Titin III – Laskurain .....19

Mtz de Irujo – Beroiz .....22  
Titin III – Laskurain .....17

### FUTBITO

Artifices – Gare Izenbarik ..... 5-0  
Bandera Trapo – Gamusinos .. 1-3  
Hola Dok – Fronton Team ..... 3-2  
Apple River – Euskolabel ..... 1-6  
EGS – Gaztetxe ..... 1-7

## AGENDA

### PILOTA

**Iruñea, 11/07/2009 17:00**

Ibai Perez – Laskurain  
Urrutikoetxea – Patxi Ruiz

### FUTBITO

**Barixakua 3,**

**19:00etan hasita, kiroldegian**  
Gamusinos – Kastakuak  
Hola Dok – Gare Izenbarik  
Torpedos – Gaztetxe

**Zapatua 4,**

**18:00etan hasita, kiroldegian**  
Artifices – Euskolabel  
EGS – Bandera Trapo  
Apple River – Fronton Team

Ekainaren 19an Bartzelona Futbol Klubaren zaleek, taldeak lortutako hiru garaipenak ospatzeko afaria egin zuten. Hogei urte daramatzate biltzen, hasieran zazpi lagun ziren eta egun, hogeita hamar dira.



Iturria: Mario Loscos



**ARRANO**  
tabernia  
etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua  
**etxera**

**ELIZPE** Hartz Klinika  
GURE ZERBITZUAK  
Ortodontzia ikustezina  
Inplanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

**GAZTELUPE**  
taberna  
tel: 943 75 20 81



**PLACENCIA**  
KONTSUMO KOOPERATIBA  
Esku eskura! Telf: 943 75 13 45





## ZORION AGURRAK



**Maren Cordoba Aristi**  
Ekainaren 27an bi urte!  
Zorionak eta muxu haundiak  
aitxitxa eta amaman partez!



**Paula Rascon Sousa**  
Uztailaren 4an 5 urte!  
Zorionak printzesa! Ondo  
pasa zure egunean eta muxu  
pila-pila bat etxekoan partez!



**Antxon Zubiaurre**  
Uztailaren 8an 5 urte!  
Zorionak eta muxu haundi  
bat etxekoan partez!



**Joseba Mendizabal Ariznabarreta**  
Uztailaren 7an 12 urte!  
Zorionak Joseba! Gora San Fermin!  
Egun zoragarri bat igaro familia  
guztiaren partez!



**Jon Caballero Mendizabal**  
Uztailaren 15ean 5 urte!  
Zorionak mutil haundi!  
Muxu pilla bat asko maite  
zaituen familia guztiaren  
partez!



**Miren eta  
Nora Gabilondo Aristi**  
Uztailaren 2an eta 10ean  
4 eta 10 urtetxo! Zorionak  
eta muxu haundiak bioi  
aitxitxa eta amaman partez!




**Irati Larreategi  
eta Sara Arin**  
Uztailaren 2an eta uztailaren 24an  
Urriak betetzen dituzuelako!  
Ondo pasa zuen egunean eta  
muxu haundi bat etxekoan partez!



**Geli eta Jakes**  
Ekainaren 13an eta 20an  
37 eta 2 urte betetzen  
dituzuelako!  
Zorionak bikote!



**Sergio Montes Martin**  
Uztailaren 9an 7 urte!  
Zorionak eta muxu haundi  
haundi bat  
etxekoan partez!



**Oier Garcia**  
Uztailaren 4an 3 urte!  
Zorionak moreno  
zure guraso, Jose eta  
Angelikaren partez!



**Loli Benito**  
Uztailaren 1ean urriak  
betetzen ditzuzelako!  
Zorionak familiakoan  
partez, bereziki, biloba  
eta ahizparen partez!

### jaiotakoak

YAGO DONOSO BOUZAS  
IRATI UNAMUNO FERNANDEZ



### hildakoak

RAIMUNDO DOMINGUEZ DOMINGUEZ



## LEHTIAKETA

▶ Plazentziatar ezagunak

**Zein ageri da argazki honetan?**



▶ **Saria:**  
Euskaraz bai toaila eta hondartzarako baloia.

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

▶ **Irabazlia:**  
Markel Fernandez

▶ **Aurreko aleko erantzuna:**

**Txaro Uzin,**  
Txoko tabernako jabia zan pasa dan aleko argaz-  
kixan agertzan zan soralezetarra.



# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Maria Isabel Urizar

## 1944KO ETZOZIKO JAIAK

**A**rgazki hau 1944ko Etzoziko jaixetan etarata dago. Etzoziko ermittan mezia ospatu ostian, plazan aurrekua dantzatzen zan eta gero, erromerixia izaten zan. Andramarixen astian egitten zan erromerixia, abuztuaren 15aren hurrengo domekan.

Ezkerretik eskumara: Juan Jose Urizar †, Merche Mugica †, Antonio Zabala †, Felipa Ariznabarreta †, Ramiro Larrañaga †, Raquel Lete †, Antonio (*Paco*) Ucin †, Mateo Pañalba †. ☞





MAKINA BEREZIAK  
LERRO AUTOMATIKOAK  
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.  
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



## Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua  
Mahai Finkoarekin




Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.  
Osintxu Auzoa  
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 76 90 76  
Fax. +34 943 76 51 28  
E-mail: [soraluce@soraluce.com](mailto:soraluce@soraluce.com)  
[www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)



# EMAN BIZIA, EROSI HERRIAN!



## Bizikale elkartea

### Soraluzeko Merkatarien Elkartea

#### TABAKOAK

MUTUA GENERAL DE SEGUROS

#### ARKUPE

EGINBERRI OKINDEGIA

CRIADO FRUTA-DENDA

MARI MAR HARATEGIA

COMERCIAL VILA

IRATXO GOXOTEGIA

SALAZAR ALTZARIAK

EDURTZA KAFETEGIA

MARISA ILE-APAINDEGIA

VENANCIO RICO FRUTA-DENDA

ETXABE HARATEGIA

IÑARRA HARATEGIA

MENDIZABAL OKINDEGIA

#### LILURAK

BELARRAK LORADENDA  
ETA BELARRAK

COOPERATIVA CONSUMO PLACENCIA

OPTIKA LAKUESTA

TXURITXU GOXOTEGIA

IOSU BITXI-DENDA

BENITO ALTZARIAK

SORALUZE ZERBITZUAK , MAPFRE

TXOKO KAFETEGIA

MENDATA TABERNA

BAR BOLIA

VIDAL FRUTA-DENDA

SUPERMERCADO AMPARO

BODEGA ESTACION